

## AGINTARIAK ETA LANGILERIA

### Oposaketak eta lehiaketak

#### OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

## 6030

*518/2021 EBAZPENA, azaroaren 15ekoa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Giza Baliabideen zuzendariarena, zeinaren bidez argitaratu egiten den 2021eko azaroko zikloaren Lekualdatze-lehiaketa ireki eta iraunkorra, Erdi-mailako Teknikariak lanbide-taldeko kategoria honetarako: Ingeniari Teknikoa (Mantentze-lanetako eta Instalazioetako Erdi-mailako Teknikaria lanpostu funtzionala), Osakidetzako zerbitzu-erakundeetan destinoa izanik.*

2019ko azaroaren 27ko Osakidetzako Administrazio Kontseiluaren Erabakiaren bidez, Osakidetza Ente Publikoaren oinarritzko destinoak betetzeko Lekualdatze-lehiaketa ireki eta iraunkorraren prozeduretarako oinarriak onartu ziren, 2019ko urriaren 29ko Osasuneko Mahai Sektorialean SATSE, SME eta UGT sindikatuekin Akordioa sinatu ondoren.

Aipatutako erabakiaren azken xedapenetako bigarrenak ezartzen duenez, erabakia garatzeko, Osakidetzako Zuzendaritza Nagusiari eskumena ematen zaio beharrezko ebazpen edo instrukzioak eman ditzan, erabakia egoki eta zuzen aplikatu dadin Ente Publikoaren zerbitzu-erakunde guztietan.

Zuzendari nagusiaren urriaren 21eko 1312/2021 Ebazpena, zeinak deitu egiten duen Lekualdatze-lehiaketa ireki eta iraunkorra Erdi Mailako Teknikarien lanbide-taldeko kategoria honetarako: Ingeniari Teknikoa (Mantentze-lanetako eta Instalazioetako Erdi-mailako Teknikaria lanpostu funtzionala), Osakidetzako zerbitzu-erakundeetan destinoa izanik.

Osakidetzako Administrazio Kontseiluaren 2019ko azaroaren 27ko Erabakiaren 4.2.1. atalean xedatutakoari jarraituz, Osakidetzako Giza Baliabideen Zuzendaritzak Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian eta Osakidetzako webgunean argitaratuko du destinoen eskaintza.

Horiek guztiak horrela, eta indarrean dagoen legedian pertsonaleko gaietan aitortuta ditudan eskumenez baliatuta,

#### EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Argitaratzea Lekualdatze-lehiaketa ireki eta iraunkorra ezartzeko 2021eko azaroko zikloaren destinoen eskaintza Erdi-mailako Teknikaria lanbide-taldeko kategoria honetan: Ingeniari Teknikoa (Mantentze-lanetako eta Instalazioetako Erdi-mailako Teknikaria lanpostu funtzionala), Osakidetzako zerbitzu-erakundeetan destinoa izanik, Ebazpen honekin batera doan eranskinaren bidez.

Ebazpen honen bidez deitutako zikloan data hauek hartu dira erreferentziazat: 2021eko abuztuaren 31, eskainiko diren lanpostuak hautatzeko; eta 2021eko abenduaren 23a, eskakizunak betetzeko, merezimenduak alegatu eta baloratzeko, eta destinoa aukeratu edo aldatzeko.

2021eko azaroko ziklo honi dagokionez, lehiakideek eskabidea aldatu ahalko dute, baita destinoen aukeraketa ere, 2019ko azaroaren 27ko Erabakiaren oinarrietan eta Osakidetzako zuzendari nagusiaren urriaren 21eko 1312/2021 Ebazpenean araututakoari jarraikiz, 2021eko abenduaren 23ra arte.

Destinoen aukeraketa aldatzeko, Lekualdatze-lehiaketa ireki eta iraunkorrean parte hartu ahal izateko gaitu den aplikazio informatikoa erabiliko da, eta ez da inolako dokumentaziorik aurkeztu beharko.

2021eko azaroko ziklo honetan, 2021eko abenduaren 23ra arte egindako destino-aukeraketa hartuko da kontuan, aldezturik adierazitakoaren arabera.

2021eko azaroko ziklo honetan, prozesu orokorrean egindako eskabideak jasoko dira, baldin eta gutxienez zikloan eskainitako destinoen bat badute 2021eko abenduaren 23a amaitzen denean.

Bigarrena.– Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak, Euskadiko Antolamendu Sanitarioaren ekainaren 26ko 8/1997 Legeak eta Osakidetzako Estatutu Sozialak ezartzen dituen azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuak xedatzen dutenaren arabera, Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsioa jarri ahalko zaio Osakidetzako Administrazio Kontseiluari, hilabeteko epean, Ebazpena EHAAn argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko azaroaren 15a.

Osakidetzako Euskal osasun zerbitzuko Giza Baliabideen zuzendaria,  
LUISA LARRAURI EREÑOZAGA.

2021eko azaroaren 30a, asteartea

## ERANSKINA

## DESTINOEN ZERRENDA

## KATEGORIA: INGENIARI TEKNIKOAK

## LANPOSTU FUNTZIONALAK: INGENIARI TEKNIKOAK

Destino kop.	Zerbitzuetakoko erakundea	Destinoa
1	Arabako ESI	Ospitalea (ospitalea eta ambulatorioa)-Egitura orokorrak - Ospitaleko Arreta / Arab. U. Ospitalea - Santiago-Vitoria-Gasteiz / Mantentze-lanak-Mantentze-lanak-Mantentze-lanak / Goizez-Goizez 08:00-15:00-Ez espezifikoko gehiago / 3HE-Mugaegunik gabe
1	Arabako ESI	Ospitalea (ospitalea eta ambulatorioa)-Egitura orokorrak - Ospitaleko Arreta / Arab. U. Ospitalea - Txagorrit-Vitoria-Gasteiz / Kanpo-kontsultak - Gasteiz-Vitoria-Gasteiz / Mantentze-lanak-Mantentze-lanak-Mantentze-lanak / Goizez-Goizez 08:00-15:00-Guardiekin / 3HE-Mugaegunik gabe
1	Bilbao-Basurtuko ESI	Ospitalea (ospitalea eta ambulatorioa)-Egitura orokorrak - Ospitaleko Arreta / Basurtuko Uniberts. Ospitalea-Bilbao / Mantentze-lanak-Mantentze-lanak-Mantentze-lanak / Goizez-Goizez 08:00-15:00-Ez espezifikoko gehiago / 3HE-Mugaegunik gabe
1	Debabarreneko ESI	Ospitalea (ospitalea eta ambulatorioa)-Egitura orokorrak - Ospitaleko Arreta / Eibarko Ospitalea-Eibar / Mantentze-lanak-Mantentze-lanak-Mantentze-lanak / Goizez-Goizez 08:00-15:00-Guardiekin / 3HE-Mugaegunik gabe
1	Debabarreneko ESI	Ospitalea (ospitalea eta ambulatorioa)-Egitura orokorrak - Ospitaleko Arreta / Mendaroko Ospitalea-Mendaro / Mantentze-lanak-Mantentze-lanak-Mantentze-lanak / Goizez-Goizez 08:00-15:00-Guardiekin / 3HE-Data igarota
1	Donostialdeko ESI	Ospitalea (ospitalea eta ambulatorioa)-Egitura orokorrak - Ospitaleko Arreta / Donostiako Unibert. Ospitalea-Donostia / San Sebastián / Mantentze-lanak-Mantentze-lanak-Mantentze-lanak / 2 Txanda-Guardiekin / 3HE-Data igarota
1	Donostialdeko ESI	Ospitalea (ospitalea eta ambulatorioa)-Egitura orokorrak - Ospitaleko Arreta / Donostiako Unibert. Ospitalea-Donostia / San Sebastián / Mantentze-lanak-Mantentze-lanak-Mantentze-lanak / 2 Txanda-Guardiekin / 3HE-igaro gabeko data (2021-11-20)
1	Donostialdeko ESI	Ospitalea (ospitalea eta ambulatorioa)-Egitura orokorrak - Ospitaleko Arreta / Donostiako Unibert. Ospitalea-Donostia / San Sebastián / Mantentze-lanak-Mantentze-lanak-Mantentze-lanak / 2 Txanda-Guardiekin / 3HE-Mugaegunik gabe
1	Ezker.-Enkar.-Gurut. ESI	Ospitalea (ospitalea eta ambulatorioa)-Egitura orokorrak - Ospitaleko Arreta / Gurutzetako Unibert. Ospitalea-Barakaldo / Mantentze-lanak-Ingeniaritza Elektronikoa-Ingeniaritza Elektronikoa / Goizez-Goizez 08:00-15:00-Ez espezifikoko gehiago / 3HE-Mugaegunik gabe
1	Zuzendaritza Nagusia	Erakunde Korporatiboa-Erakunde Korporatiboa / Zuzendaritza Nagusia - Araba-Vitoria-Gasteiz / Ekonomia eta Finantzako Zuzendaritza-Azpiegituren Zuzendariordetza-Ingeniaritza / Lanaldi Zatiua-Lanaldi zatiu ohikoa-Ez espezifikoko gehiago / 3HE-Mugaegunik gabe